

Sahararen aldeko liburu azoka ireki dute Algortan

Sahararekiko elkartasunean, bigarren eskuko liburuen azoka zabaldu dute goizeko 11etan Algortako Telletxe plazan. Larunbata arte irekita egongo da azoka eta bertan euro bat eta 3 euroren bitarteko salneurrian erosi ahal izango dira liburuak eta entziklopedia aleak. Bildutako dirua Ausserd-eko Basiri eta Sowetoko biktimak izeneko eskolak birgaitzera bideratuko dira. Ekimena Euskal Herriko ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) abiatu du ' Ikasle bat, adreilu bat ' kanpainaren baitan, baina Getxoko Kultur Etxearen laguntza ere izan du. Izan ere, salmentan dauden liburuak udal liburutegiek bere fondoetatik emandakoak dira.

Getxo udalerriko liburutegiek urtero liburu asko biltzen dute jendeak emanda, baina liburu asko errepikatuta daude eta, egoera onean badaude, gordailu batean jasotzen dira. Azoka ostegunetik larunbatera egongo da zabalik 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Telletxe plazan.